

Jaiotzak % 2,3 jaitsi dira 2016ko hirugarren hiruhilekoan

Ezkontzaz kanpoko jaiotzak guztien % 43 izan dira

2016ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEn 4.746 jaiotza izan dira. Horrek esan nahi du aurreko urteko aldi berean baino % 2,3 jaiotza gutxiago izan direla, Eustaten datuen arabera. Araba izan da jaitsiera handiena izan duen lurraldea, 795 haur jaio baitira, aurreko urteko hiruhileko berean baino % 4,7 gutxiago; Bizkaian (2.320 jaiotza) jaiotzak % 3,5 jaitsi dira eta Gipuzkoan (1.631 jaiotza), aldiz, jaiotzek % 0,7 egin dute gora.

10 amatik 8k 30 urte baino gehiago dituzte

Jaiotzak amaren adinaren arabera banatuz gero, 30-34 urteko amen taldeak nagusi izaten jarraitzen du, erditzeen % 36,6 biltzen ditu-eta. Talde horren ondotik adinez goragoko hurrengo taldea dago, 35-39 urtekoa, jaiotzen % 35,3 biltzen dituen, % 12,9 biltzen dituen 25-29 urteko taldeak baino bi bider eta erdi gehiago. Muturretako adin-taldearen artean, 25 urtetik beherakoen taldeak jaiotzen % 5,9 biltzen ditu eta 39 urtetik gorakoenak % 9,3.

Ezkontzaz kanpoko jaiotzak guztien % 43,1 dira. Ehuneko hori aurreko urteko aldi berekoa (% 41,4) baino handiagoa da. Hiruhileko honetan amen batez besteko adina 33,4 urtekoa da: ama ezkonduak 33,9 urte dituzte batez beste, ama ezkongabeek 32,5 urte eta dibortziatuak 35,7 urte.

Ama atzerritarrek nazionalitate espainiarrekoek baino 3,3 urte gutxiago dituzte

Euskal Autonomia Erkidegoan 2016ko uztailan, abuztuan eta irailean ama izan diren emakumeen % 21,7 atzerritarrak dira. Ehuneko hori Araban bakarrik gaintu da, % 28,4ra iritsi da-eta. Gipuzkoan eta Bizkaian, aldiz, nazionalitate atzerritarreko amak % 20,6 eta % 20,1 izan dira, hurrenez hurren.

Emakumeak ama izaten direneko adina ere aldatu egiten da nazionalitatea kontuan hartzen badugu. Izan ere, atzerritarren batez besteko adina 30,8 urtekoa izan da eta nazionalitate espainiarreko amena 34,1 urtekoa.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, erdiak baino gehiago (2.454 haur) lehenengo seme-alabak izan dira 2016ko udako hilabeteetan: 1.786 (% 37,6) beste seme-alabaren bat zuten familietara iritsi dira eta % 10,7 hirugarrenak edo hurrengoak izan dira.


Lehen seme-alaba izan duten emakumeen kopurua % 5,6 jaitsi da; alabaina, % 0,8 igo dira bigarren haurra izan dutenen kasuak, eta hirugarrena edo hurrengoak izan dituztenen kasuetan igoera % 3,5ekoa izan da, betiere 2015eko hiruhileko beraren aldean.

1. taula: Euskal AEn bizirik jaioak. Alderaketa taula

	2016/III		Aurreko hiruhilekoa (2016/II)		Aurreko urteko hiruh. bera (2015/III)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	4.746	100,0	4.514	100,0	4.859	100,0
Araba / Álava	795	16,8	725	16,1	834	17,2
Bizkaia	2.320	48,9	2.299	50,9	2.405	49,5
Gipuzkoa	1.631	34,4	1.490	33,0	1.620	33,3
Amaren adinaren arabera	4.746	100,0	4.514	100,0	4.859	100,0
≤ 24 urte	281	5,9	252	5,6	244	5,0
25 - 29 urte	613	12,9	634	14,0	674	13,9
30 - 34 urte	1.736	36,6	1.665	36,9	1.791	36,9
35 - 39 urte	1.676	35,3	1.540	34,1	1.729	35,6
≥ 40 urte	440	9,3	423	9,4	421	8,7
Amaren egoera zibilaren arabera	4.746	100,0	4.514	100,0	4.859	100,0
Ezkondua	2.700	56,9	2.614	57,9	2.847	58,6
Ezkongabea	2.046	43,1	1.900	42,1	2.012	41,4
Amaren naziotasuna	4.746	100,0	4.514	100,0	4.859	100,0
Espainiarra	3.718	78,3	3.588	79,5	3.858	79,4
Atzeritarra	1.028	21,7	926	20,5	1.001	20,6
Jaiotza-hurrenkera	4.746	100,0	4.514	100,0	4.859	100,0
Lehenengoa	2.454	51,7	2.256	50,0	2.599	53,5
Bigarrena	1.786	37,6	1.811	40,1	1.771	36,4
Hirugarrena edo gehiago	506	10,7	447	9,9	489	10,1

Iturria: Eustat. Jaiotzen estatistika

Euskal AEn erregistratuta dauden eta Euskal AEn bizi den ama batengandik bizirik jaioak. Hileroko datuak


Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

 Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko jaiotzen estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko jaiotzen estatistikari buruzko datu-bankua